

HEZKUNTZA ESPARRUTIK LAN ARLORA IGAROTZEKO BEKAK

ERAKUNDE KOLABORATZAILEENTZAKO GIDA

UPV/EHUko praktiken zerbitzua
01/04/2025

borondatezko.praktikak@ehu.eus

Elbira Zipitria Eraikina. Ondarreta Pasealekua, 20018
Donostia-San Sebastián/Gipuzkoa

1.	PRAKTIKAK KUDEATZEKO APLIKAZIORAKO SARBIDEA.....	3
1.1.	GAURen kudeaketarako (esteka) sarbide zuzena	3
1.2.	Erakunde kolaboratzailea erregistratuta EZ badago.....	3
1.3.	Praktika eskaini nahi den Fakultate/Eskolarako sarbidea eskatzea (entitateek alta emanda egon behar dute).....	4
2.	PRAKTIKALDIA.....	5
3.	BEKA KOPURUA LANGILE KOPURUAREN ARABERA.....	5
4.	FAKULTATEKO/ESKOLAKO PRAKTIKEN ARDURADUNAREKI KO KOMUNIKAZIOA	6
5.	PRAKTIKETAKO ESKAINTZA ERREGISTRATZEKO GAURerako SARBIDEA	6
6.	HITZARMENA ESKURATZEA ETA SINATZEA.....	9

Gidaren helburua da entitate kolaboratzaileak GAUR kudeaketa sistemara sartzeko aukerak deskribatzea, ondoz ondoko hiru hilabeteko praktika eskaintza bat gehitzeko Hezkuntza esparrutik lan arlora igarotzeko bekaren esparruan.

1. PRAKTIKAK KUDEATZEKO APLIKAZIORAKO SARBIDEA

Unibertsitatearen kudeaketa sisteman erakunde kolaboratzaile gisa aritzeko, erakundeak web orriaren bidez GAUR plataforman erregistratu beharko dira.

1.1. GAURen kudeaketarako (esteka) sarbide zuzena

Ikastegien zerrenda

Campus	Ikastegia	Harremanetarako pertsona	Practicuma kudeatzen du	Practicuma web-orritik	Praktiges webetik	Lan- eskaintzak webetik	V p k
Araba	410 Arabako Esperientzia Gelak		Ez	Ez	Ez	Ez	E
Araba	151 Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Arabako Atala		Ez	Ez	Bai	Bai	E
Araba	125 Farmazia Fakultatea		Bai	Ez	Bai	Ez	E
Araba	154 Hezkuntza eta Kirol Fakultatea		Bai	Ez	Bai	Ez	E
Araba	135 Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren ...		Bai	Ez	Bai	Bai	E
Araba	160 Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea, Arabako Atala		Bai	Ez	Bai	Ez	E
Araba	130 Letren Fakultatea		Ez	Ez	Bai	Bai	E
Araba	127 Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen Gasteizko Irakasgunea (...)		Ez	Ez	Ez	Ez	E
Araba	163 Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola		Bai	Bai	Bai	Ez	E
Bizkaia	320 Arte Ederren Fakultatea		Bai	Bai	Bai	Bai	E
Bizkaia	902 Berezko Tituluen Bulegoa		Bai	Ez	Ez	Ez	E
Bizkaia	354 Bilboko Hezkuntza Fakultatea		Bai	Ez	Bai	Ez	E
Bizkaia	364 Bilboko Ingeniaritza Eskola		Ez	Ez	Bai	Ez	E
Bizkaia	363 Bilboko Ingeniaritza Eskola		Bai	Ez	Bai	Ez	E
Bizkaia	350 Bilboko Ingeniaritza Eskola		Bai	Ez	Bai	Ez	E
Bizkaia	345 Bilboko Ingeniaritza Eskola		Bai	Ez	Bai	Ez	E
Bizkaia	430 Bizkaiko Esperientzia Gelak		Ez	Ez	Ez	Ez	E
Bizkaia	908 Doktorego Eskola		Bai	Ez	Ez	Ez	E
Bizkaia	321 Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	gestor.practicas.fcee@eh...	Bai	Ez	Bai	Ez	E
Bizkaia	351 Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Elcano Atala		Bai	Ez	Bai	Bai	E
Bizkaia	323 Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea		Bai	Bai	Bai	Bai	E
Bizkaia	356 Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	lh.praktikak@ehu.es	Bai	Bai	Bai	Ez	E

Erregistratu enpresa berria GAURerako sarbidea

1.2. Erakunde kolaboratzailea erregistratuta EZ badago.

Erakunde berri gisa erregistratzeko, sakatu "Erregistratu enpresa berria" botoia. Horrela, hurrengo pantaila irekiko da, eta bertan entitatearen IFZ sartu beharko duzu aurrera jarraitzeko.

Enpresa berriaren erregistroa

Idatzi enpresaren IFZ eta sakatu Jarraitu botoia

* IFZ:

IFZ horri lotuta erregistroren bat badago GAUR modulueta dagoeneko eskaintzaren bat egin delako, pantaila bat irekiko da eta bertan erregistroak egongo dira ikusgai. Erregistro bat baino gehiago egonez gero, harremanetarako pertsonarekin eta egoitzako sukurtsaleko edo erakundeko ataleko helbide elektronikoarekin bat datorrena hautatu beharko da, ondoren erregistroan sartzeko IFZren ondoan dauden geizien bitartez. 

Aurretiaz UPV/EHUrekin ez bada praktiketako eskaintzarik kudeatu, ez da erregistrorik egongo, eta erakundeari alta emateko datuak sartu eta gordetzeko botoia sakatu beharko da.

Enpresa berriari alta emateko pantaila

* IFZ:

* Sozietatearen izena:

* Izaera:

* Izena:

* Sektorea:

* Tamaina:

* Herrialdea:

* Bide mota:

* Helbidea:

* Zenbakia:

* Posta-kodea:

* Harremanetarako pertsona:

* Kargua:

* Harremanetarako telefonoa:

* Harremanetarako helbide elektronikoa:

* URLa:

Gorde Atzera

1.3. Praktika eskaini nahi den Fakultate/Eskolarako sarbidea eskatzea (entitateek alta emanda egon behar dute).

Erakundea aldeztu aurretik erregistratuta badago eta dagokion erregistrorako sarbidea aukeratu ondoren (harremanetarako pertsona egokia...), ikastegietara sarbidea eskatzeko pantaila irekiko da (Fakultateak/Eskolak). Zerrendan praktika eskaintzeko aukeratu nahi den Ikastegia/Fakultatea/Eskola bilatu beharko da, eta, ondoren, sarbide zutabeko koadroa markatu beharko da ☒. Azkenik, laukitxoak markatzean aktibatzen den "Eskatu sarbidea" botoia sakatu beharko da.

Ikastegietan sartzeko eskaera

Campus	Ikastegia	Harremanetarako pertsona	Sarbidea
Araba	151 Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Arabako Atala		☐
Araba	125 Farmazia Fakultatea		☐
Araba	154 Hezkuntza eta Kirol Fakultatea		☐
Araba	135 Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Atala		☐
Araba	160 Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala		☐
Araba	130 Letren Fakultatea		☒
Araba	163 Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola		☐
Bizkaia	320 Arte Ederren Fakultatea		☐
Bizkaia	354 Bilboko Hezkuntza Fakultatea		☐
Bizkaia	364 Bilboko Ingeniaritza Eskola		☐
Bizkaia	363 Bilboko Ingeniaritza Eskola		☐
Bizkaia	350 Bilboko Ingeniaritza Eskola		☐
Bizkaia	345 Bilboko Ingeniaritza Eskola		☐
Bizkaia	321 Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	gestor.practicas.fcee@ehu.es	☐
Bizkaia	351 Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Elcano Atala		☐
Bizkaia	323 Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea		☐
Bizkaia	356 Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	lh.praktikak@ehu.es	☐
Bizkaia	352 Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea		☐
Bizkaia	327 Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea		☐
Bizkaia	310 Zientzia eta Teknologia Fakultatea	saecyt@ehu.es	☐
Bizkaia	324 Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko Atala		☐
Gipuzkoa	240 Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	daget.zuzendari-idaz@ehu.eus	☐

Eskatu sarbidea Atzera Hasi

Fakultateak/Eskolak sarbidea baliozkotuko du, eta sistemak GAUR plataformara sartzeko eta eskaintzak egin ahal izateko erabiltzailearen datuak eta pasahitza bidaliko ditu mezu elektroniko batean (ikus [GAURerako SARBIDEA PRAKTIKETAKO ESKAINTZA ERREGISTRATZEKO](#), 5. puntua).

2. PRAKTIKALDIA

2024-25 ikasturteko eskaintza gorde ahal izango da, interesatzen zaigun titulazioari dagokion Fakultatea/Eskola adierazita, aldi hauetarako:

- Ekaina-uztaila-abuztua
- Uztaila-abuztua-iraila

Aldi guztien hasiera- eta amaiera-data hilaren lehen eta azken egun baliodunak izango dira.

2025-26 ikasturteko **urria-azaroa-abendua** aldiari dagokionez, eskaintza gordetzeko aldezturik Fakultatearekin/Eskolarekin kontsultatu beharko da; izan ere, jakin behar da eskaintza non grabatu behar den (interesatzen zaigun titulazioaren Fakultatean/Eskolan edo 916 Trantsizio Beken Bulegoa ikastegian), [4. puntuko](#) jarraibideekin aurrera egiteko.

3. BEKA KOPURUA LANGILE KOPURUAREN ARABERA

Eskatu daitekeen bekadunen kopurua kontsulta daiteke taula honetan:

Enpresako langileen kopurua	Bekadunen gehieneko kopurua Fakultate eta Eskola guztien artean
3 gehienez ere	1
4tik 7ra	2
8tik 15era	3
16tik 20ra	4
21etik 30era	5
31tik 40ra	6
41etik 60ra	7
61etik 80ra	8
81etik 100era	9
100 langiletik gora	10 gehienez ere

GARRANTZITSUA:

Eskaintza desberdinak gorde daitezke (langile kopuruaren taularen arabera gehienez dagozkionak), betiere kontuan hartuta eskaintza berarekin Fakultate/Eskola bakarra hautatu daitekeela, eta ez dela onartuko eskaintza bera bikoiztea Fakultate/Eskola desberdinetan, ez titulazio berean, ez beste batean.

4. FAKULTATEKO/ESKOLAKO PRAKTIKEN ARDURADUNAREKI KO KOMUNIKAZIOA

Erakunde kolaboratzailearen alta erregistroa egin eta/edo Fakultate/Eskolarako sarbidea eskatu ondoren, intereseko ikaslearen titulazioa ematen den Ikastegi/Fakultate/Eskolako praktiken arduradunarekin (<https://www.ehu.eus/es/web/enplegua/arduradunak>) harremanetan jarri beharko duzu. Horretarako, mezu elektroniko bat bidali beharko diozu, TRANTSIZIO BEKETAN parte hartzeko asmoa jakinarazteko. Mezu horretan honako datu hauek zehaztu beharko dituzu:


- Eskatutako ikaslearen edo tituludunaren profila.
- Egitekoak.
- Praktikaldiaren kokalekua.
- Ordutegia.

Eskaintza gorde aurretik, erakunde kolaboratzaileko begiralearen datu hauek zehaztu beharko dituzu: izen-abizenak, NANa, jaiotza-data, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia.

5. PRAKTIKETAKO ESKAINTZA ERREGISTRATZEKO GAURerako SARBIDEA

Erakunde kolaboratzailea baliozkotu eta GAURera sartzeko gakoak eskuratu ondoren, sistemara sartu beharko duzu: <http://gestion.ehu.es/gaur>

“Irakasleak, AZP eta bestelako erabiltzaileak” atala hautatu:



Eta “Unibertsitateko akademi gestio gaurkotua” atalean



GAUR kolektibo ez korporatiboan identifikatzailea (IFK) eta pasahitza (enpresaren harremanetarako mezuan jasotako gakoa) sartu behar dituzu.

SARBIDE ZERBITZU NAGUSIA
SSO ZERBITZUA

GAUR erabiltzaile ez-korporatiboa

UPV/EHU LDAP kontua baduzu UPV/EHU erabiltzailearekin sartu, bestela, Erabiltzaile ez-korporatiboarekin sartu.

Erabiltzailea _____

Pasahitza _____

Sartu >

Pasahitza ahaztu duzu?

UPV/EHU erabiltzailea

Pasahitz sarbidea

Erabiltzailea _____


Pasahitza _____

Sartu >

Pasahitza ahaztu duzu?

Erabilera gida | Segurtasun oharra | Sarbide politika | Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua (945014400)

Behin barruan zaudela, Borondatezko praktikak atalera jo beharko duzu:



Bertan, pantaila bat irekiko da, eta “Ikastegia” (Fakultatea/Eskola) aukeratu ahal izango duzu, lehendik sarbidea baliozkotuta dutenen edo ikastegi desberdinen artean:

Ikastegiaren eta ikasturtearen hautapena

Hautatu zein ikastegirekin lan egin nahi duzun eta zein ikasturtetan

Hautatu ikastegia 125 Farmazia Fakultatea

Ikasturtea:	Egoera
>> 2020/21	Irekita
>> 2019/20	Irekita

Ikastegia	Sarbidea
215 Kimika Fakultatea	Balidatzeko zain
356 Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	Eskatu sarbidea
130 Letren Fakultatea	Balidatua
352 Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Eskatu sarbidea
377 Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Eskatu sarbidea

Sarbide eskaera balidatzeko zain geldituko da.

Ikastegia/Fakultateak/Eskolak sarbidea baliozkotu ondoren, aukera hori hautatu ahalko duzu “Hautatu ikastegia” etiketaren zabalgarrian:

Ikastegiaren eta ikasturtearen hautapena

Hautatu zein ikastegirekin lan egin nahi duzun eta zein ikasturtetan

Hautatu ikastegia 125 Farmazia Fakultatea

Ikasturtea:	Egoera
>> 2020/21	Irekita
>> 2019/20	Irekita

Ikastegia	Sarbidea
240 Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	Eskatu sarbidea
320 Arte Ederren Fakultatea	Balidatua
350 Bilboko Ingeniaritza Eskola	Eskatu sarbidea
345 Bilboko Ingeniaritza Eskola	Eskatu sarbidea
364 Bilboko Ingeniaritza Eskola	Eskatu sarbidea

Zabalgarrian hautatu ondoren, irekita edo itxita dauden ikasturteak agertuko dira.

Sartu hautatutako Ikastegi/Fakultate/Eskolan eta dagokion ikasturtean  geziak erabiliz.

Ondoren, sartu eskaintza “Praktikak” menuaren barruko “Praktiken eskaintza” aukeran, “Berria” botoia erabilita.

Borondatezko praktikak

- Ikasturteak - ikastegiak
- Ikastegiko datuak
- Ikastegiko araudia
- Enpresa
- Praktikak
 - Praktiken eskaintza**
 - Hautatu ikasleak
 - Praktika esleituak
 - Begiraleak
 - Albisteak
 - Praktiken eskaintzaren kopia

Borondatezko praktiken eskaintza

Titulua	Egoera	Hasiera-data	Amaiera-data	Luzapena	Hitzartua	Izena emandako ikasleen kopurua	ikasle guztiak
Ez dago daturik							

Berria

Eskainiko den eskaintzaren datuak sartzeko, sakatu “Trantsizio beka” **aukera**. 916 Hezkuntza esparrutik lan atalean gordetako eskaintzen kasuan, **praktikaren titulua** zehaztuko da “Azalpen laburra” eremuaren barruan, “Datu orokorrak” erlaitzean.

Gorde prozesua amaitzeko.

Eskaintza dagokion ikastegian gorde ondoren, “Balidatzeko zain” geldituko da. **Unibertsitateak baliozkotuko du eskaintza eta esleituko dio praktika ikastegiak hautatutako ikasleari**; halaber, sistemaren mezu automatiko baten bidez jakinaraziko dira hautaketa prozesuan egondako aldaketak.

6. HITZARMENA ESKURATZEA ETA SINATZEA

Praktikak kudeatzeko tresnan praktika esleitu dela jakinarazten duen mezua jaso ondoren, ezkerreko menuko “Práctica esleituak” aukeraren bidez hitzarmena sortu ahaliko da,  ikurra sakatuta.

Sortzen den hitzarmena alde guztiek sinatu beharko dute praktikaldia hasi aurretik.

Borondatezko praktikak

- Ikasturteak - ikastegiak
- Ikastegiko datuak
- Ikastegiko araudia
- Enpresa
- Praktikak
 - Praktiken eskaintza
 - Hautatu ikasleak
 - Praktika esleituak**
 - Begiraleak
 - Albisteak
 - Praktiken eskaintzaren kopia

Praktika esleitzen zerrenda

Formularioa ezkutuan, egin klik ikusteko

Ikusi 

Praktikaren izenburua	Unitatea / Atala	Ikaslea	Instrukt	Hasiera-data - Amaiera-data	Begira		
>> Formación y con...		MOLINA...	Mendib...	2018/09/01 - 2018/09/30	>>		
>> Formación y con...		MINER H...	Mendib...	2018/09/01 - 2018/09/30	>>		
>> Matlabetik Pyth...		RODRIG...	Gurrutx...	2019/03/11 - 2019/08/12	>>		

Argibide gehiago behar izanez gero, honako hauek dira zure zalantzak argituko dituzten harremanetarako pertsonak: praktika eskaini nahi duzun titulazioko praktiken arduradunak edo UPV/EHUko Praktiken Zerbitzua: borondatezko.praktikak@ehu.eus